



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko irailaren 16a

104. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

#### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-25/MOC-00111. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita demokrazia kulturalarekin konprometi dadin. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- 11-25/MOC-00112. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita formula egokiak jaso ditzan zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzean. Irene Royo Ortín andreak aurkeztu du (4. or.).
- 11-25/MOC-00113. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontratu publikoen esleipenean ustelkeria ekiditen lagunduko duten neurriak jaso ditzan kudeaketa publikoan. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).
- 11-25/MOC-00114. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egiazko etxebizitza plan bat taxutu dezan, eraginkorra izanen dena eta etxebizitzaren arazoa konponduko duena Nafarroan. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 11-25/MOC-00102. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendaria berrikustean Nafarroako Ubidearekiko konexiorako obren exekuzioari buruzko aurreikuspenak mantentzen dituzan. Osoko Bilkuran izapidetzea (7. or.).
- 11-25/MOC-00104. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Europar Batasunari eska diezaion Nekazaritzako Politika Erkide soilagoa eta landa-eremurako baliagarriagoa egin dezan, behar adina baliabide eta egitura propioa izanen dituen. Osoko Bilkuran izapidetzea (7. or.).
- 11-24/MOC-00053. Mozioa, zeinaren bidez berretsi egiten baitira Hizkuntza Gutxituen Europako Itunaren helburuak eta 7.2 artikulua, hizkuntza horien aldeko neurri bereziak hartze aldera. Mozioa erretiratzea (8. or.).
- 11-24/MOC-00144. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Ituna, migratzaileen eta errefuxiatuen giza eskubideei buruzko nazioarteko araudia urratzeagatik. Mozioa erretiratzea (8. or.).
- 11-25/MOC-00039. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aurtengo abuztuaren 31 baino lehen azterlan sakon bat egin dezan merkatu libreko alokairuko etxebizitza-errentak handien – bai pertsona fisikoek, bai juridikoek – tributazioari buruz. Mozioa erretiratzea (9. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—11-25/POR-00308. Galdera ezohikoa, "Navarra Green" Trantsizio Ekologikorako Estrategian jasotako 74 proiektuetako Next Generation funts propioen eta Europako funtsen egungo aurrekontua betetzeari buruzko informazioa eskuratzea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (10. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kide bat hautatzea. Hautagitzak aurkezteko epea luzatzea (11. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-25/MOC-00111. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita demokrazia kulturalarekin konprometi dadin**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita demokrazia kulturalarekin konprometi dadin.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhua Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, eta mozioaren jarraipena Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak egin dezan eskatzen du.

#### Zioen azalpena

Kultura gizarte demokratiko oren funtsezko zutabea da. Balioak transmititzeko, pentsamendu kritikoa eta bizikidetzaren sustatzeko eta gizarte-kohe-sioari eusten dioten narratiba partekatuak eraikitze-ko espazioa da. Horregatik, polarizazio politikoko testuinguruetan, kultura, sarritan, erasoan eta manipulazio ideologikoaren jomuga bihurtzen da.

Spainian, azken urteotan, arrazoi politiko edo moralak direla medio, antzerki-lanak, filmak eta haurrentzako liburuak zentsuratu edo erretiratu

izanaren lekuko izan gara, bai eta eskuin eta eskuin muturreko alderdiek kontrolatutako autonomia-erkidegoetako edo udaletako gobernuek kultura-programazioak baldintzatzeko ahaleginen lekuko ere. Horri memoria demokratikoaren inguruko ukapen eta errebisionismo historikoa gehitu behar zaio, bizikidetzan oinarritutako oinarritzko gizarte-adostasunak lausotzea bilatzen baitute.

Fenomeno hori ez da Espainian soilik gertatzen. Nazioartean ere adibide kezagarriak agertzen ari dira. Estatu Batuetan, Donald Trumpen agintaldian, kultura-erakunde nazionalen finantzaketa nabarmen murrizteko saiakerak gertatzen ari dira; adibidez, Washingtingo museo asko kudeatzen dituen Smithsonian Institutuaren aurka edo UNESCOtik ateratzeko.

Era berean, Estatu Batuetako eta Europako unibertsitateetan presio politikoak eman dira askatasun akademikoa mugatzeko, halako moduan non klima-aldaketarekin, memoria historikorekin, sexu-aniztasunarekin edo genero-berdintasunarekin lotutako edukiak debekatu baitira. Dinamika horien helburua da borroka ideologikoaren eremu bihurtzea ezagutza eta kultura, eta, halatan, motor kritikoa eta demokratikoa izateko duten eginkizuna ahultzen da.

Europako Parlamentuak behin eta berriz ohartarazi du arrisku horietaz, eta salatu du hainbat estatu kidetan kultura-zentsurako praktikak egin direla eta askatasun akademikoan atzerapausoak izan direla. Gainera, UNESCOk Kultura Adierazpenen Aniztasunari buruzko 2005eko Konbentzioan azpimarratu du kultura babestu behar dela, guztion ondasun globala den aldetik.

Kultura ezin da erabili norgehiagoka politikora-ko tresna gisa, ezta zentsura-eremu gisa ere: erresilientzia demokratikoaren eta bizikidetzaren funtsezko azpiegitura gisa defendatu behar da, batez ere polarizazio-garaietan eta erakundeekiko konfiantza-krisia dagoenean.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzen dugu gure erkidegoak demokrazia kulturalarekin duen konpromisoa aitortu dezan eta, horrenbestez, kultura eskubide eta ondasun komuna dela berrets dezan eta zentsura-ahalegin oro edo sorkuntza artistikoaren, memoria demokratikoaren edo ikerketa akademikoaren manipulazio ideologiko oro gaitzets dezan.

2. Nafarroako Gobernua premiatzen dugu Nafarroako kultura-espazioak —museoak, antzokiak, liburutegiak eta arte-zentroak— bizikidetzako, askatasuneko eta kohesio demokratikoko eremu babestu gisa aitortu ditzan, zeinak babestu egin behar baitira edozein injerentzia alderdikoitatik eta estrategikotzat

jo behar baitira aniztasunaren, pentsamendu kritikoren eta erresilientzia sozialaren defentsan.

3. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen da aktiboki parte har dezan askatasun kulturala eta eskubide kulturalen defentsa sustatzen duten foro nazionaletan, europarretan eta nazioartekoetan, giza eskubideen eta bizikidetzaren zati integral diren aldetik.

4. Nafarroako Gobernua premiatzen dugu printzipio horiek indartu ditzan kultura- eta bizikidetzapolitiketan eta, halatan, kultura-espazioak topagune inklusibo, plural eta demokratiko gisa sendotu ditzan.

Iruñean, 2025eko irailaren 10ean

Eleduna: Ainhoa Unzu Gárate

## 11-25/MOC-00112. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita formula egokiak jaso ditzan zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzean

*IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita formula egokiak jaso ditzan zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzean.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 15en

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioari atxikitako Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau sar dadin eskatzen du:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuaren zerga-bilketa % 97,6 hazi da 10 urtean, zehazki, 2015eko ekainetik 2025eko ekainera. Igoera % 97,6koa izan da. 2015eko ekainean 1.187.474.767 euro bildu ziren, eta 2025eko ekainean 2.346.750.710 euro.

Hori arrazoizkoa izanen litzateke baldin eta gure ekonomiaren BPGa ehuneko ehun handitu izan balitz, baina ez da hori gure erkidegoaren kasua, eta horrek esan nahi du zergadunen "poltsikoetatik" Nafarroako Gobernuaren "poltsikora" aldatu dela neurri handi batean errenta, eta, beraz, gure erosahalmena, errentak edukitzeko ahalmena, murriztu egin dela. Horri inflazioa gehitzen badiogu, ideia bat egin dezakegu familia askoren ekonomia zentzuzko okerragotu den.

Denok ikusten dugu familia askok hilaren amaierara iristeko zer-nolako zailtasunak dituzten. Langile-familia horiei kosta egiten zaie erosketa-saskia betetzea eta fakturak ordaintzea.

Horri gehitu behar zaio lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak diren errentak nolabait "salbuetsita" daudela gainerako erkidegoetan.

Horregatik uste dugu atzeraezina dela zerga-politika berrikustea eta errenta baxuen eta ertainen presioa murriztea.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko foru-lege proiektuari begira Nafarroako Gobernuak 2026rako egin beharreko proposamenak honako hau jasoko du formula egoki baten bidez:

1. Laneko etekinak lanbide arteko gutxieneko soldataren parekoak edo txikiagoak direnean, ez da aitopena egiteko betebeharririk izanen.

2. 35.663 eurotik beherako likidazio-oinarrietarako karga-tasak murriztuko dira.

Iruñean, 2025eko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortín

## **11-25/MOC-00113. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita kontratu publikoen esleipenean ustelkeria ekiditen lagunduko duten neurriak jaso ditzan kudeaketa publikoan**

### *UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita kontratu publikoen esleipenean ustelkeria ekiditen lagunduko duten neurriak jaso ditzan kudeaketa publikoan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 15en

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2025eko irailaren 18ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, kontratu publikoen esleipenean ustelkeria ekiditen lagunduko duten neurriak jaso ditzen kudeaketa publikoan.

Zioen azalpena:

Azkenaldian ikusi dugu ustelkeria ez dela iraganeko arazo bat, ezta beste autonomia-erkidego batzuetako auzi bat ere.

Koldo kasua (pandemia betean komisio ilegala kobratu ziren, eta eskupekoak ordaindu ziren obra publikoak esleitzearen truke) Nafarroan sortu zen, eta protagonistak Nafarroako Alderdi Sozialistakoak ziren.

UCOren txostenek Santos Cerdánek zuzendutako ustezko trama bat aipatzen dute (Cerdán espetxean dago une honetan), Espainia osoan, baita Nafarroan ere, obra publikoen adjudikaziodun izan ziren enpresa eta pertsona jakin batzuei lotua.

Nafarroaren kasuan, bereziki susmagarria da Belateko tunelen bikoizketaren esleipena, boto partikularrak eta kontratazio-mahaiko kideek irregularitasunei buruz egindako ohartarazpenak izan zituen; bereziki susmagarria da gertatutakoagatik, funtzionarioen txostenengatik eta, azkenik, 76 milioi euroko obra bat esleitu zaiolako Santos Cerdánen jabetzako ABEE bati: Servinabar.

Orain arte, Nafarroako Gobernuaren jarrera izan da informazioa ezkutatzeko, funtzionarioen agerraldia mugatzea eta UPN iraintzea dena ezartzen saiatzeko.

Duela gutxi, Nafarroako Parlamentuan ikerketa-batzorde bat eratzea onetsi da, azken legegintzaldietan obra publikoen lizitazio eta esleipen jakin batzuk ikertzeko, baina batzorde horretatik harago, UPNren ustez positiboa da mozio bat aurkeztea

kontrol-mekanismoak indartzeko, Nafarroan kontratu publiko bat ere susmopean egon ez dadin.

Nafarroako gizarteak eredugarritasuna, zorrotasuna eta gardentasuna eskatzen dizkigu.

Mozio honen oinarrian dago, hain zuzen ere, publikoa dena babestea norberaren onurarako erabili nahi dutenen aurrean.

UPNrentzat oinarritzko araua dena defendatzea da kontua: diru publikoa guztiona da, eta ezin da susmorik egon edo tranparik egin.

Horregatik guztiagatik, honako hau proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 5 milioi eurotik gorako lehiaketa publikoen kasuan espediente nahitaez bidal dakion Nafarroako Kontratazio Publikoko Batzordeari, berri-berri dezan, baldin eta kontratazio-mahaietan boto partikularren bat egon bada.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du legebiltzar honetan Nafarroako

Gobernuaren kudeaketa aztertzen duen ikerketabatzorde bat irekitzen bada Gobernuko lehendakaria bertan agerraldia egitera behartuta egon dadin, eman beharreko azalpenak emateko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zorrotz bete dezan Gardentasunari buruzko Foru Legea, Gobernuko kideen, haren goi-kargudunen eta derrigortuta dauden gainerako langileen agendei dagokienez, eta Gardentasunaren Atarian argitara eman dadin, enpresekin, pertsonekin eta entitateekin egindako bilerei dagokienez, bilera horiek non eta noiz egin diren, nor parte hartu duen eta zer gai jorratu diren.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurriak har ditzan kontratazio-mahaietan boto partikularren ematen dituzten funtzionarioak esparru politikotik egindako errepre-salietatik eta seinalamenduetatik babesteko.

Iruñean, 2025eko irailaren 11n

Eleduna: Javier Esparza Abaurrea

## **11-25/MOC-00114. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egiazko etxebizitza plan bat taxutu dezan, eraginkorra izan dena eta etxebizitzaren arazoa konponduko duena Nafarroan**

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egiazko etxebizitza plan bat taxutu dezan, eraginkorra izan dena eta etxebizitzaren arazoa konponduko duena Nafarroan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 15en

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Talde Mistoko foru parlamentari eta VOXeko kide Emilio Jiménez Románek honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Espainiako eta Nafarroako etxebizitza-premia gure gazteen arazo handienetako bat da. Gaur egungo gazteak euren gurasoak baino nabarmen okerrago bizi dira, zeren haiek gauza baitziren etxebizitza bat jabetzan edukitzeko eta familia bat sortzearen emantzipatzeko eta bizitza autonomo bat edukitzeko euren soldatari esker.

Urte urte ikusten ari gara euren burua progresistatzen duten taldeen promesa hutsalek lortzen duten gauza bakarra dela etxebizitza-arloan ongi funtzionatzen zuena desmuntatzea eta hitzez eta neurri eragingabeek haragoko bestelako konponbiderik ez daukatela erakustea.

Etxebizitza-merkatuak plan ausartak eta egokiak behar ditu, etxebizitza eraiki ahal izateko eta gero eta eskasagoa den eskaintza gero eta handiagoa den eta bete ezin den eskari batera egokitzeko.

VOXen uste dugu estimulatu egin behar dela, eta ez behartu, jabeek beren etxebizitzak merkatura atera ditzaten, zeren eta etxebizitzaren arazo nagusia benetako eskaintzarik eza baita, eta zeregin hori botere publikoek susta dezakete.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu benetako etxebizitza-plan bat taxutu dezaten, eraginkorra dena eta Nafarroako etxebizitzaren arazoa konponduko duena, bereziki gazteentzat, eta, besteak beste, lurzoruaren liberalizazioa, etxebizitza sozialak egiaz eraikitzea eta zergak murriztea jasoko dituen.

Iruñean, 2025eko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## **11-25/MOC-00102. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendaria berrikustean Nafarroako Ubidearekiko konexiorako obren exekuzioari buruzko aurreikuspenak mantentzen ditzan**

### *OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA*

2025eko irailaren 15ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Legebiltzarreko Osoko Bilkuran izapidetu dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendaria berrikustean Nafarroako Ubidearekiko

konexiorako obren exekuzioari buruzko aurreikuspenak mantentzen ditzan. Mozioa 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00104. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Europar Batasunari eska diezaion Nekazaritzako Politika Erkide soilagoa eta landa-eremurako baliagarriagoa egin dezan, behar adina baliabide eta egitura propioa izanen dituen**

### *OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA*

2025eko irailaren 15ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Legebiltzarren Osoko Bilkuran izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Europar Batasunari eska diezaion Nekazaritzako Politika Erkide soilagoa eta landa-eremurako baliagarriagoa

egin dezan, behar adina baliabide eta egitura propioa izanen dituen. Mozioa 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea..

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-24/MOC-00053. Mozioa, zeinaren bidez berretsi egiten baitira Hizkuntza Gutxituen Europako Itunaren helburuak eta 7.2 artikulua, hizkuntza horien aldeko neurri bereziak hartze aldera**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

2025eko irailaren 15ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, berretsi egiten dira Hizkuntza Gutxituen Europako Itunaren helburuak eta 7.2 artiku-

lua, hizkuntza horien aldeko neurri bereziak hartze aldera. Mozioa 2025eko apirilaren 16ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-24/MOC-00144. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Ituna, migratzaileen eta errefuxiatuen giza eskubideei buruzko nazioarteko araudia urratzeagatik**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

2025eko irailaren 15ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Javier Arza Porrás jaunak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Ituna, migratzaileen eta errefuxiatuen giza eskubideei

buruzko nazioarteko araudia urratzeagatik. Mozioa 2024ko azaroaren 15eko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-25/MOC-00039. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita aurtengo abuztuaren 31 baino lehen azterlan sakon bat egin  
dezan merkatu libreko alokairuko etxebizitza-edukitzaile handien –bai  
pertsona fisikoen, bai juridikoen– tributazioari buruz**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

2025eko irailaren 15ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Jasotzat ematea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da aurtengo abuztuaren 31 baino lehen azterlan sakon bat egin dezan merkatu librean alokairuko etxebizitza-

edukitzaile handien –bai pertsona fisikoen, bai juridikoen– tributazioari buruz. Mozioa 2025eko martxoaren 14ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

F saila:  
GALDERAK

---

**11-25/POR-00308. Galdera ezohikoa, "Navarra Green" Trantsizio Ekologikorako Estrategian jasotako 74 proiektuetako Next Generation funts propioen eta Europako funtsen egungo aurrekontua betetzeari buruzko informazioa eskuratzea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa**

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

2025eko irailaren 15ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ángel Ansa Echegaray jaunak eskatu du, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 16.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, deitzen den lehenbiziko Osoko Bilkuran sar dadila galdera ezohiko bat, zeinaren bidez jakin nahi baita ea zerk eragotzi duen 11-25/PEI-00621 espediente-zenbakiari buruzko informazioa berehala eman dadin Mahaiak egindako errekerimendua betetzea.

Aipatutako artikuluekin eta Erregelamendua-ren 42.1 seigarrena eta zazpigarrena artikuluekin bat, ERABAKITZEN DA:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak (Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioa) aurkeztutako galdera ezohikoa, "Navarra Green" Trantsizio Ekologikorako Estrategian jasotako 74 proiektuetako Next Generation funts propioen eta Europako funtsen egungo aurrekontua betetzeari buruzko informazioa eskuratzea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Deitzen den lehenbiziko Osoko Bilkuran izapidetu dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kide bat hautatzea**

*HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kidea hautatzeko hautagaitzak aurkezte-

ko epea **2025eko urriaren 2ko 12:00ak arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

